/2021 FORU AGINDUaren proiektua, koa, Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak emana, zeinaren bidez aldatzen baitira 180, 182, 184, 187, 189, 190, 198, 289 eta 296 eredu informatiboak.

Nafarroako Foru Ogasunak ahalik eta zerga-informazio zehatzena lor dezan, beharrezkoa da hura eguneratzea une bakoitzeko errealitatearen arabera, eta aldi berean saiatzea zergapekoek informazioa emateko duten betebeharra betetzeko lana ahalik eta erosoen izan dadin.

Horregatik, zenbait aldaketa egin behar dira araudian, hain zuzen ere, informazio betebehar jakin batzuk betetzeko eman behar den informazioari buruzkoan. Komeni da aldaketa horiek modu integratzailean egitea, arau berean, bermatu ahal izateko, lehen baino hobeto, zergapekoek badakitela zer aldaketa egin diren, eta saihesteko, ahal den neurrian, aldaketa horiek hainbat arautan sakabanaturik gera daitezela.

Hauexek dira foru agindu honetan jasotzen diren aldaketa nagusiak:

Lehen eta bigarren artikuluek aldatzen dute Ogasuneko eta Finantza Politikako kontseilariaren abenduaren 19ko 157/2017 Foru Agindua eta Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilariaren urtarrilaren 18ko 8/2013 Foru Agindua. Lehenengoaren bidez, 180 eredua onetsi zen, “Ondasun higiezinen errentamenduaren edo azpierrentamenduaren ondoriozko errenta edo etekin batzuei dagozkien atxikipenen eta konturako sarreren urteko laburpena; atxikipenak eta konturako sarrerak pertsona fisikoen errentaren gaineko, sozietateen gaineko eta ez-egoiliarren errentaren gaineko zergetakoak dira, establezimendu iraunkorrei dagozkienak” izenekoa. Bigarrenaren bidez, 182 eredu berria onetsi zen, “Jasotako ekarpenen eta dohaintzen eta egindako erabileren aitorpen informatiboa” izenekoa. Aldaketa horren xedea da zehaztapen tekniko bat egitea, zergadunak, aitorpen osagarria aurkeztuz gero, nahitaezkoa baitu hura identifikatzea. Horrela, ez da akatsik izanen aipatu eredu informatiboak betetzean.

Hirugarren artikuluak aldatzen du azaroaren 25eko 81/2015 Foru Agindua, Ogasuneko eta Finantza Politikako kontseilariarena, zeinaren bidez onesten baita 184 eredua, “Errentak eratxikitzeko araubideko entitateek aurkeztu beharreko urteko aitorpen informatiboa” izenekoa. Izan ere, abenduaren 29ko 21/2020 Foru Legeak kendu egin zuen zenbatespen objektiboaren araubidea eta, horrenbestez, erregistro-diseinuak egokitu behar dira (foru lege horren bidez zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartu ziren, eta Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bategina aldatu zen).

Laugarren artikuluak aldatzen ditu Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilariaren urriaren 28ko 339/2014 Foru Aginduaren eranskineko erregistro-diseinuak, “K” izeneko gako berria gehitzeko “ESKURATZEAREN EDO BESTERENTZEAREN JATORRIAREN EDO ETORKIAREN GAKOA” izeneko eremuan (2. motako erregistro-diseinuetako 142 idazgunea) inbertsio kolektiboko sozietateen akzio liberatuak entregatzeko eragiketaren jatorriaren berri emateko. Foru Agindu horren bidez 187 eredua onetsi zen, honako hauek aurkezteko: inbertsio kolektiboko erakundeen kapitala edo ondarea ordezkatzen duten akzio edo partaidetzen aitorpen informatiboa, eta pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren, sozietateen gaineko zergaren eta ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren atxikipenen eta konturako sarreren urteko laburpena, akzio edo partaidetza horiek eskualdatu edo itzultzearen ondorioz lortutako errentei eta ondare gehikuntzei dagokienez.

Bosgarren artikuluak aldatzen du Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak otsailaren 27an emandako 27/2009 Foru Aginduaren 3. artikulua. Foru agindu horren bidez 189 eredua onetsi zen, “Balore, aseguru eta errentei buruzko urteko aitorpen informatiboa” izenekoa, eta diseinu fisiko eta logiko batzuk ezarri ziren horiek zuzenean ordenagailuz irakur daitekeen euskarri batean aurkeztu ahal izateko.

3. artikulua aldatzen da, hain zuzen ere, aldaketa bat ezarri delako Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamenduaren 62.17.A).

a) artikuluan, maiatzaren 24ko 174/1999 Foru Dekretuak onetsitakoarenean, balio negoziatuen balio nominalari buruzko informazioa gehitzeko. Aldaketa honek indarra hartuko du aipatu erregelamenduaren aldaketak indarra hartzen duenean.

Seigarren artikuluak aldatzen du Ogasuneko eta Finantza Politikako kontseilariak urtarrilaren 8an emandako 3/2018 Foru Agindua; foru agindu horren bidez, 190 eredua onetsi zen, “Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan, lan etekinengatik, enpresa eta lanbide jarduera batzuengatik, sariengatik eta errenta-egozpen batzuengatik egindako atxikipenen eta konturako sarreren urteko laburpena” izenekoa. Aldaketa horren xedea da, nagusiki, egokitzea “L” gakoaren azpigako batzuen testua, gauzazko ordainsariei buruzkoena, bat etor dadin ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsitako Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen testu bateginaren 15. artikuluko testu berriarekin. Aldatu nahi dira, era berean, “H” gakoaren azpigakoak, zenbatespen objektiboaren araubidea ezabatu baitzen eta egokitu behar baitira.

Zazpigarren artikuluak aldatu egiten du Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariaren abenduaren 16ko 156/2016 Foru Agindua, zeinaren bidez 198 eredua onetsi baitzen “Finantza-aktiboekin eta bestelako balore higigarriekin egindako eragiketen urteko aitorpena” izenekoa, zenbait aldaketa tekniko sartzeko erregistro-diseinuetan, informazioaren kalitatea hobetzeko asmoz.

Horrela, bada, lehenik “PARTAIDETZA-PORTZENTAJEA” eremua aldatzen da, aipamen bat ezabatzen baita, eragiketa beraren aitortzaileek partaidetza-portzentaje bera dutenean zeroak jarri beharrari buruzkoa. Horrenbestez, eragiketako aitortu bakoitzaren portzentajeak bete behar dira, baita guztiek portzentaje bera badute ere.

Bigarrenik, ereduko “EMANDAKO EDO JASOTAKO DIRU KONPENTSAZIOA” eremua aldatzen da, “L” eragiketa-gakoa kentzeko (baloreen split-a eta kontrasplita), gisa horretan hobetuko baita zergadunaren

balore-zorroko informazioaren kalitatea. Helburu horrekin berarekin, aldatzen da eremu horri buruz “KONPENTSAZIOAK” eremuan zegoen aipamena.

Hirugarrenik, “LOTUTAKO ERAGIKETAREN EKITALDIA” izeneko eremua aldatzen da, eragiketarik gera ez dadin lotu gabe, bata ekitaldi batean gauzatzen delako eta bestea geroagoko beste ekitaldi batean. Horrela, bada, lotu behar den eragiketa gauzatzeke baldin badago, 0001 gakoa jarriko da “LOTUTAKO ERAGIKETAREN EKITALDIA” izeneko eremuan, orain arte egin behar zen moduan.

Baina jakinarazi beharra dago, lotutako eragiketa hori gauzatzen den ekitaldian, zer ekitalditan gauzatu zen egiazki eragiketa hori, eta jakinarazi beharra dago zein den aldez aurretik egindako eragiketa horren agindu-zenbakia.

Horrez gain, eta aldaketa horrekin lotuta, “ERAGIKETA-GAKOA” izeneko eremua ere aldatzen da (134 idazgunea), exijituko baita bete dadila “LOTUTAKO ERAGIKETAREN EKITALDIA” izeneko eremua, aitortutako eragiketarekin lotutako eragiketa ez dagokionean aitorpenaren ekitaldiari, beste ekitaldi bati baizik.

Azkenik, bi eremu berri gehitu zaizkio 198 ereduari (IFZ eta izen-abizenak edo sozietatearen izena), bitartekaria identifikatzeko, baldin kontrapartidako eragiketa lotua aitortzaileak berak egin ez badu.

Zortzigarren artikuluak aldatzen du abenduaren 9ko 149/2016 Foru Agindua, Ogasuneko eta Finantza Politikako kontseilariarena, 289 eredua onesten duena, "Elkarren laguntzaren esparruko finantza-kontuei buruzko urteko aitorpen informatiboa" izenekoa. Maiatzaren 25eko 366/2021 Errege Dekretuaren bidez garatu zen finantza transakzioei buruzko zergaren autolikidazioak aurkezteko eta ordaintzeko prozedura, eta aldatu ziren zerga arloko beste arau batzuk. Errege-dekretu horrek, azken xedapenetako hirugarrenean, aldaketa bat sartu zuen azaroaren 13ko 1021/2015 Errege Dekretuaren 4. artikuluan (errege dekretu horren bidez ezarri zen zenbait

finantza konturen titulartasuna edo kontrola dutenen egoitza fiskala identifikatzeko betebeharra, bai eta kontu horiei buruz informatzekoa ere, elkarren laguntzaren esparruan). Aldaketa horren eraginez, abenduaren 9ko 149/2016 Foru Agindua aldatzen da, jasotzeko 289 eredua aurkezteko betebeharra izanen dela baita aitorpena egitera beharturik dagoen finantza-erakundeak ez duenean zer kontu informatu ere. Aldaketa hori gauzatzen da aipatu foru agindu horren 3. artikulua aldatuta.

Aitorpen informatibo hori aurkezteko betebehar berriak eragiten die 1021/2015 Errege Dekretuko eginbide-arauak aplikatu ondotik komunikatzeko konturik ez dutela ondorioztatzen duten finantza-erakundeei.

Bederatzigarren artikuluak aldatzen du Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariaren azaroaren 10eko 183/2009 Foru Agindua, zeinaren bidez onetsi baitzen 296 eredua, “Ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga. Establezimendu iraunkorrik gabeko ez-egoiliarrak. Atxikipenen eta konturako sarreren urteko aitorpena" izenekoa. Aldaketa horren helburua da hobetzea 296 ereduan –urteko aitorpen informatiboan– eman behar den informazioa. Bereziki, “03” eta “07” azpigakoak aldatzen dira, eta “12” eta “13” azpigakoak txertatzen (ereduaren diseinu fisikoetako eta logikoetako 2. motako erregistroko 102 eta 103 idazguneak) zeinetan emanen baita kargatik salbuetsita dauden bidaia-gastuetarako esleipenen eta dieten kontu. Horrez gain, eremu berri bat sortzen da, non adieraziko baita zein den ordaintzaileak gauzazko ordainsarien hartzaileari jasanarazi dizkion konturako sarreren zenbatekoa.

Era berean, 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera agiriak elektronika bidez aurkeztuko direnez, foru aginduetako artikulu jakin batzuk aldatzen dira, agiriak ordenagailu bidez zuzenean irakur daitekeen euskarrian aurkezteari buruzkoak.

Ekonomia eta Ogasuneko kontseilaria gaituta dago foru agindu hau emateko, halaxe xedatu delako Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamenduaren 62.23 artikuluan (maiatzaren 24ko 174/1999 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen erregelamendu hori), baita Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 26/2016 Foru Legearen 79.5 artikuluan eta

114/2017 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Sozietateen gaineko Zergari buruzko Erregelamenduaren 48.6 artikuluan ere.

Ez-egoiliarren gaineko zergari dagokionez, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari buruzko Legearen testu bateginak, zeina martxoaren 5eko 5/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsi baitzen, azken xedapenetako bigarrenaren 2. apartatuan ahalmena ematen dio Ogasuneko ministroari onets ditzan ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren aitorpena eta konturako ordainketak egiteko ereduak; ezar ditzan eredu horiek aurkezteko modua, tokia eta epeak, eta finka ditzan telematika bidez aurkezteko baldintzak eta kasuak. Ulertu behar da Ogasuneko ministroari egindako gaikuntza horiek zerga arloan eskumena duen kontseilariari eginak direla, horretarako oinarria izanik, besteak beste, Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoaren 28. eta 46. artikuluak.

Horrenbestez,

AGINTZEN DUT:

Lehenengo artikulua. Ogasuneko eta Finantza Politikako kontseilariak abenduaren 19an emandako 157/2017 Foru Aginduaren aldaketa. Foru agindu horren bidez 180 eredua onetsi zen, “Ondasun higiezinen errentamenduaren edo azpierrentamenduaren ondoriozko errenta edo etekin batzuei dagozkien atxikipenen eta konturako sarreren urteko laburpena; atxikipenak eta konturako sarrerak pertsona fisikoen errentaren gaineko, sozietateen gaineko eta ez-egoiliarren errentaren gaineko zergetakoak dira, establezimendu iraunkorrei dagozkienak” izenekoa.

Bat. 1. artikulua.

“1. artikulua. 180 eredua onestea.

Onesten da 180 eredua "Pertsona fisikoen errentaren gaineko, sozietateen gaineko eta ez-egoiliarren errentaren gaineko zergak, establezimendu iraunkorrei dagozkienak. Atxikipenak eta konturako sarrerak.

Ondasun higiezinen errentamenduaren edo azpierrentamenduaren ondoriozko errenta edo etekin batzuk. Urteko laburpena" izenekoa, elektronikoki aurkeztuko dena, Internet baliatuta”.

Bi. 4. artikulua.

“4. artikulua. 180 eredua aurkezteko epea.

Urtero aurkeztuko dira, urtarrilaren 1etik otsailaren 5era, biak barne, 180 eredua eta hari erantsi beharreko dokumentazioa, aurre-aurreko urte naturaleko zenbateko atxikiei eta konturako sarrerei dagokienez”.

Hiru. 5. artikulua.

“5. artikulua. 180 eredua aurkezteko modua.

180 eredua elektronika bidez aurkeztu beharko da, Internet baliatuta, 7. eta 8. artikuluetan ezarritako baldintza orokorrei eta prozedurari jarraikiz”.

Lau. 6. artikulua, kentzea.

Bost. 7. artikulua.

“7. artikulua. 180 ereduaren aitorpenak elektronika bidez, Internet baliatuta, aurkezteko baldintza orokorrak.

1. 180 ereduaren aitorpenen aurkezpen elektronikoa baldintza hauei jarraikiz eginen da:

a) Aitortzaileak identifikazio fiskaleko zenbakia eduki beharko du.

b) Aitortzaileak eduki beharko du identifikazio, autentifikazio eta sinadura elektronikoaren sistema bat, eta ziurtagiri elektroniko kalifikatu bat erabili, Nafarroako Foru Ogasunak onartzeko modukoa, arloan indarra duen legediarekin bat etorriz.

Ziurtapen zerbitzuen emaileak eta baimenduta dauden ziurtagiri elektronikoak dagokien atalean aipatzen dira; Interneteko

https://hacienda.navarra.es helbidetik abiatuta iristen ahal da atal horretara.

c) Zergapekoak pertsona fisikoak direnean, Cl@ve sistema erabiliz ere egin daiteke aurkezpena, zeina identifikazio, autentifikazio eta sinadura elektronikoaren sistema baita, amankomuna dena Estatuko administrazio-sektore publiko osorako, Nafarroako Foru Komunitateko Administraziorako eta harekin bat egiten duten beste autonomia erkidego eta toki entitateetarako, eta araututa dagoena PRE/1838/2014 Aginduan. Hari esker, herritarrak harreman elektronikoa izan dezake zerbitzu publikoekin gako itunduen bidez, hartan erabiltzaile gisa izena eman ondoren.

Nafarroako Foru Ogasunak zehazten dituen kasuetan, gako itundu bidezko beste identifikazio sistema batzuk onar daitezke pertsona fisikoentzat.

d) Baldin aurkezlea aitorpenak hirugarrenen izenean egiteko baimenduta dagoen pertsona edo entitate bat bada, eduki beharko du Nafarroako Foru Ogasunak onetsitako ziurtagiri elektroniko kualifikatua edo Cl@ve sistema, zeinak aurreko b) eta c) letretan aipatu baitira, hurrenez hurren, bat etorriz Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariaren ekainaren 29ko 130/2009 Foru Aginduan xedatutakoarekin. Foru agindu horren bidez onetsi zen aitorpenak, jakinarazpenak eta zerga arloko beste agiri batzuk hirugarren pertsonen izenean telematikoki aurkezteko eta tributu zorren ordainketa telematikoki tramitatzeko kanpo-lankidetzarako akordioa.

e) Aitortzaileak edo, bidezkoa bada, aurkezle baimendunak erabili beharko du, aldez aurretik, igorri beharreko aitorpena duen fitxategia lortzeko laguntza programa bat, non eta ez duen aukeratzen aurkezpen elektronikoa egiteko prestatu den inprimakia erabiltzea. Laguntza programa hori izan daiteke Nafarroako Foru Ogasunak 180 ereduaren aitorpenetarako prestatu duena, edo formatu bereko fitxategi bat sortzen duen beste bat.

Fitxategi horien edukia I. eranskinean ezartzen diren erregistro-diseinuen araberakoa izanen da.

f) Aitortzaileek bete beharko dituzte aurkezpen elektroniko hori egiteko eskatzen diren arau teknikoak, zeinak ikusgai baitaude Nafarroako Foru Ogasunaren web-orrian, Interneteko https://hacienda.navarra.es helbidean.

2. Bide elektronikoa erabiliz igortzen diren aitorpenetan akats formalen bat atzematen denean, sistemak berak emanen dio horren berri aitortzaileari errore-mezuen bitartez, behar diren zuzenketak egin ditzan".

Sei. I. eranskina. Sinadura aldatzea eta A letra kentzea, zeinetan euskarrien ezaugarriak aipatzen baitira. "Diseinu logikoak" izeneko B) letra, A) letra izanen da aurrerantzean. "180 EREDUAREN DISEINU LOGIKOAK"

Zazpi. I. eranskina. "AURREKO AITORPENAREN FROGAGIRIAREN ZENBAKIA" eremua aldatzen da 1. motako erregistro-diseinuan (aitortzailearen erregistroa), 123-135 idazguneak hartzen dituena:

| | | |
|---|---|---|
| 123-135 | Zenbakizkoa | AURREKO AITORPENAREN FROGAGIRIAREN ZENBAKIA<br>Baldin "AITORPEN OSAGARRIA" eremuan "C" adierazi bada, edo "ORDEZKO AITORPENA" eremuan "S" adierazi bada, zer aitorpen osatzen edo ordezkatzen duen, haren frogagiriaren zenbakia adieraziko da. Zenbakizko eremua, 13 idazgunekoa. Beste edozein kasutan, zeroz beteko da. |

Bigarren artikulua. Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilariak urtarrilaren 18an emandako 8/2013 Foru Aginduaren aldaketa. Foru agindu horren bidez 182 eredu berria onetsi zen, "Jasotako ekarpenen eta dohaintzen eta egindako erabileren aitorpen informatiboa" izenekoa.

Bat. 1. artikulua.

"1. artikulua. 182 eredua onestea.

182 eredua onesten da, jasotako ekarpenei eta dohaintzei eta egindako erabilerei buruzko aitorpen informatiboa egiteko, elektronikoki aurkeztuko dena, Internet baliatuta".

Bi. 5. artikulua.

“5. artikulua. 182 eredua aurkezteko modua.

182 eredua elektronika bidez aurkeztuko da, Internet baliatuta, helbide honetan: https://hacienda.navarra.es”.

Hiru. 6. artikulua, kentzea.

Lau. II. eranskina. Sinadura aldatzea eta A) letra kentzea, zeinetan euskarrien ezaugarriak aipatzen baitira. “Diseinu logikoak” izeneko B) letra, A) letra izanen da aurrerantzean.

“182 EREDUAREN DISEINU LOGIKOAK”

Bost. II. eranskina. “AURREKO AITORPENAREN FROGAGIRIAREN ZENBAKIA” eremua aldatzen da 1. motako erregistro-diseinuan (aitortzailearen erregistroa), 123-135 idazguneak hartzen dituena:

| | | |
|---|---|---|
| 123-135 | Zenbakizkoa | AURREKO AITORPENAREN FROGAGIRIAREN ZENBAKIA<br>Baldin "AITORPEN OSAGARRIA" eremuan "C" adierazi bada, edo "ORDEZKO AITORPENA" eremuan "S" adierazi bada, zer aitorpen osatzen edo ordezkatzen duen, haren frogagiriaren zenbakia adieraziko da. Zenbakizko eremua, 13 idazgunekoa. Beste edozein kasutan, zeroz beteko da. |

Hirugarren artikulua. Ogasuneko eta Finantza Politikako kontseilariaren azaroaren 25eko 81/2015 Foru Aginduaren aldaketa. Foru agindu horren bidez 184 eredua onetsi zen, "Errentak eratxikitzeko araubideko entitateek aurkeztu beharreko urteko aitorpen informatiboa" izenekoa.

Bat. 1. artikulua.

“1. artikulua. 184 eredua onestea

184 eredua onesten da "Errentak eratxikitzeko araubidea duten entitateen urteko aitorpen informatiboa” izenekoa, elektronika bidez aurkeztuko dena, Internet baliatuta, 7. artikuluan ezarritako baldintza orokorrei eta 8. artikuluan ezarritako prozedurari jarraikiz”.

Bi. 3.1.c).4 artikulua.

“4. Kapital propioak hirugarrenei lagatzearen ondorioz kapital higigarriaren etekinak sorrarazi badira errenta-egozpenaren araubideko entitatearen alde, kapital propioak lagatzen dituen pertsona edo entitatea identifikatu beharko da, egoiliarra edo ez-egoiliarra izan.

Era berean, atxikitzailearen izen-abizenak edo sozietatearen izena eta identifikazio fiskaleko zenbakia emanen dira”.

Hiru. 4. artikulua.

“4. artikulua. 184 eredua aurkezteko epea

184 eredua urtero aurkeztuko da, urtarrilaren 1etik otsailaren 20ra bitarte, aurre-aurreko urte naturalean entitateak eskuratutako errentak eta entitateko kide bakoitzari eratxikitzen ahal zaizkionak aitortzeko”.

Lau. 5. artikulua.

“5. artikulua. 184 eredua aurkezteko modua

184 eredua elektronika bidez aurkeztuko da, Internet baliatuta, 7. eta 8. artikuluetan ezarritako baldintza orokorrak eta prozedura betez”.

Bost. 6. artikulua, kentzea.

Sei. 7. artikulua.

“7. artikulua. 184 ereduaren aitorpenak telematika bidez, Internet baliatuta, aurkezteko baldintza orokorrak.

1. 184 ereduaren aitorpenen aurkezpen elektronikoa baldintza hauei jarraikiz eginen da:

a) Aitortzaileak identifikazio fiskaleko zenbakia eduki beharko du (IFZ).

b) Aitortzaileak eduki beharko du identifikazio, autentifikazio eta sinadura elektronikoaren sistema bat, eta ziurtagiri elektroniko kalifikatu bat erabili,

Nafarroako Foru Ogasunak onartzeko modukoa, arloan indarra duen legediarekin bat etorriz.

Ziurtapen zerbitzuen emaileak eta baimenduta dauden ziurtagiri elektronikoak dagokien atalean aipatzen dira; Interneteko https://hacienda.navarra.es helbidetik abiatuta iristen ahal da atal horretara.

c) Zergapekoak pertsona fisikoak direnean, Cl@ve sistema erabiliz ere egin daiteke aurkezpena, zeina identifikazio, autentifikazio eta sinadura elektronikoaren sistema baita, amankomuna dena Estatuko administrazio-sektore publiko osorako, Nafarroako Foru Komunitateko Administraziorako eta harekin bat egiten duten beste autonomia erkidego eta toki entitateetarako, eta araututa dagoena PRE/1838/2014 Aginduan. Hari esker, herritarrak harreman elektronikoa izan dezake zerbitzu publikoekin gako itunduen bidez, hartan erabiltzaile gisa izena eman ondoren.

Nafarroako Foru Ogasunak zehazten dituen kasuetan, gako itundu bidezko beste identifikazio sistema batzuk onar daitezke pertsona fisikoentzat.

d) Aurkezlea baldin bada aitorpenak hirugarrenak ordezkatuz egiteko baimenduta dagoen pertsona edo entitate bat, eduki beharko du Nafarroako Foru Ogasunak onetsitako ziurtagiri elektroniko kalifikatua, zeina aurreko b) eta c) letretan aipatu baita, bete dadin ekainaren 29ko 130/2009 Foru Aginduan xedatutakoa (foru agindu horren bidez onetsi zen aitorpenak hirugarren pertsonak ordezkatuz eta telematika bidez aurkezteko kanpo-lankidetzarako akordioa).

e) Aitortzaileak edo, bidezkoa bada, aurkezle baimendunak erabili beharko du, aldez aurretik, igorri beharreko aitorpena duen fitxategia lortzeko laguntza programa bat, non eta ez duen aukeratzen aurkezpen elektronikoa egiteko prestatu den inprimakia erabiltzea. Laguntza programa hori izan daiteke Nafarroako Foru Ogasunak 190 ereduaren aitorpenetarako prestatu duena, edo formatu bereko fitxategi bat sortzen duen beste bat.

Fitxategi horien edukia foru agindu honen eranskinean ezartzen diren erregistro-diseinuen araberakoa izanen da.

f) Aitortzaileek bete beharko dituzte aurkezpen elektroniko hori egiteko eskatzen diren arau teknikoak, zeinak Nafarroako Foru Ogasunaren web-orrian ikusgai dauden, Interneteko https://hacienda.navarra.es helbidean.

2. Bide elektronikoa erabiliz igortzen diren aitorpenetan akats formalen bat atzematen denean, sistemak berak emanen dio horren berri aitortzaileari errore-mezuen bitartez, behar diren zuzenketak egin ditzan".

Zazpi. II. eranskina. Eranskineko sinadura aldatzea eta A) letra kentzea, zeinetan euskarri magnetikoen ezaugarriak aipatzen baitira. "Diseinu logikoak" izeneko B) letra, A) letra izanen da aurrerantzean.

"184 EREDUAREN DISEINU LOGIKOAK"

Zortzi. II. eranskina. "ETEKINAK ZEHAZTEKO ARAUBIDEA", 2. motako erregistro-diseinuan (entitatearen erregistroa), 82 idazgunea:

| | | | |
|---|---|---|---|
| 82 | Zenbakizkoa | ETEKINAK ZEHAZTEKO ARAUBIDEA.<br>- Baldin "Gakoa" eremuan (entitatearen erregistroaren 2. motako erregistroko 77 idazgunea) "D" adierazi bada, eremu honetan adieraziko da zein den errentak eratxikitzeko araubideko entitatearen enpresa- edo lanbide-jardueretako etekinak zehazteko araubidea, hiru gako hauetatik dagokiona hautatuta: | |
| | | 1 | Zuzeneko zenbatespen arrunta. |
| | | 2 | Zuzeneko zenbatespen erraztua. |
| | | 3 | Zuzeneko zenbatespen berezia. |

Bederatzi. II. eranskina. "SARRERA OSOAK / SORTUTAKO ETEKINEN ZENBATEKOA / KONTABILITATE-EMAITZA", 2. motako erregistro-diseinua (entitatearen erregistroa), 151-164 idazguneak:

| | | |
|---|---|---|
| 151-164 | Alfazenbakizkoa | SARRERA OSOAK / SORTUTAKO ETEKINEN ZENBATEKOA / KONTABILITATE-EMAITZA.<br>- Baldin "Gakoa" eremuan (entitatearen erregistroko 2. motako erregistroko 77 idazgunea) "A" adierazi bada, eta "Azpigakoa" eremuan (entitatearen erregistroko 2. motako erregistroko 78 eta 79 idazguneak) "01", honako hau adieraziko da eremu honetan:<br>Espainian lortu diren kapital higigarriaren sarrera osoen zenbatekoa. Zenbateko honetan kapital propioak hirugarrenei lagatzearen ondoriozko etekinak ere sartuko dira, ekitaldian errentak eratxikitzeko araubideko entitatearen alde sortu direnak. |

<table>
<tr><td></td><td></td><td colspan="2">- Baldin “Gakoa” eremuan (entitatearen erregistroko 2. motako erregistroko 77 idazgunea) “A” adierazi bada, eta "Azpigakoa" eremuan (entitatearen erregistroko 2. motako erregistroko 78 eta 79 idazguneak) “02”, honako hau adieraziko da eremu honetan:<br><br>Atzerrian lortu diren kapital higigarriaren sarrera osoen zenbatekoa. Zenbateko honetan kapital propioak hirugarrenei lagatzearen ondoriozko etekinak ere sartuko dira, ekitaldian errentak eratxikitzeko araubideko entitatearen alde sortu direnak.<br><br>- Baldin “Gakoa” eremuan (entitatearen erregistroko 2. motako erregistroko 77 idazgunea) “B” adierazi bada, honako hau adieraziko da eremu honetan:<br><br>Kapital propioak hirugarrenei lagatzearen ondorioz izandako kapital higigarriaren etekinak, errentak eratxikitzeko araubideko entitatearen alde sortu direnak, hain zuzen, sozietateen gaineko zergaren zergadun diren edo establezimendu iraunkorra duten ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren zergadun diren entitateko kideei eratxikitzen ahal zaizkienak.<br><br>- Baldin “Gakoa” eremuan (entitatearen erregistroko 2. motako erregistroko 77 idazgunea) “C” adierazi bada, eta “Azpigakoa” eremuan (entitatearen erregistroko 2. motako erregistroko 78 eta 79 idazguneak) “01”, honako hau adieraziko da eremu honetan:<br><br>Espainian lortu diren kapital higiezinaren sarrera osoen zenbatekoa. Zenbateko horretan sartuko dira ekitaldian errentak eratxikitzeko araubideko entitatearen alde sortu diren kapital higiezinaren etekinak.<br><br>- Baldin “Gakoa” eremuan (entitatearen erregistroko 2. motako erregistroko 77 idazgunea) “C” adierazi bada, eta “Azpigakoa” eremuan (entitatearen erregistroko 2. motako erregistroko 78 eta 79 idazguneak) “02”, honako hau adieraziko da eremu honetan:<br><br>Atzerrian lortu diren kapital higiezinaren sarrera osoen zenbatekoa. Zenbateko horretan sartuko dira ekitaldian errentak eratxikitzeko araubideko entitatearen alde sortu diren kapital higiezinaren etekinak.<br><br>- Baldin “Gakoa” eremuan (entitatearen erregistroko 2. motako erregistroko 77 idazgunea) “D” adierazi bada, eta “Azpigakoa” eremuan (entitatearen erregistroko 2. motako erregistroko 78 eta 79 idazguneak) “01”, honako hau adieraziko da eremu honetan:<br><br>Errentak eratxikitzeko araubideko entitateak dagokion enpresa edo lanbide jardueragatik Espainian lortutako sarrera osoen zenbatekoa.<br><br>- Baldin “Gakoa” eremuan (entitatearen erregistroko 2. motako erregistroko 77 idazgunea) “D” adierazi bada, eta “Azpigakoa” eremuan (entitatearen erregistroko 2. motako erregistroko 78 eta 79 idazguneak) “02”, honako hau adieraziko da eremu honetan:<br><br>Errentak eratxikitzeko araubideko entitateak dagokion enpresa edo lanbide jardueragatik atzerrian lortutako sarrera osoen zenbatekoa.<br><br>- Baldin “Gakoa” eremuan (entitatearen erregistroko 2. motako erregistroko 77 idazgunea) “H” adierazi bada, honako hau adieraziko da eremu honetan:<br><br>Entitateak merkataritzako eta kontabilitateko arau aplikagarriei jarraikiz prestatu beharreko urteko kontuetan agertzen den kontabilitate-emaitza.</td></tr>
<tr><td></td><td></td><td>151</td><td>IKURRA. Eremu hau beteko da baldin eta negatiboak badira sarrera osoen zenbatekoa, sortutako etekinen zenbatekoa edo kontabilitate-emaitza. Kasu horretan, “N” adieraziko da. Beste edozein kasutan, eremu honen edukia zuriune bat izanen da.</td></tr>
<tr><td></td><td></td><td>152-164</td><td>ZENBATEKOA. Zenbakizko eremua, 13 idazgunekoa. Sarrera osoen zenbatekoa, sortutako etekinen zenbatekoa edo kontabilitate-emaitza adieraziko da, ikurrik eta koma dezimalik gabe.<br><br>Zenbatekoak eurotan adieraziko dira.<br><br>Eremu hau bitan banatzen da:<br><br>152-162. ZENBATEKOAREN OSOKO ZATIA. Edukirik ez badu, zeroz beteko da.<br><br>163-164. ZENBATEKOAREN ZATI DEZIMALA. Edukirik ez badu,</td></tr>
</table>

| | | | |
|---|---|---|---|
| | | | zeroz beteko da. |
| | | Gainerako kasuetan, eremu hau hutsik utziko da. | |

Hamar. II. eranskina. “Gastuak / Errenta negatiboen soberakina”, 2. motako erregistro-diseinuan (entitatearen erregistroa), 165-176 idazguneak:

| | | | |
|---|---|---|---|
| 165 -176 | Zenbakizkoa | GASTUAK / ERRENTA NEGATIBOEN SOBERAKINA.<br><br>- Baldin “Gakoa” eremuan (entitatearen erregistroaren 2. motako erregistroko 77 idazgunea) “A” adierazi bada, eta “Azpigakoa” eremuan (entitatearen erregistroaren 2. motako erregistroko 78-79 idazguneak) “01”, eremu honetan zera adieraziko da ikurrik eta koma dezimalik gabe:<br><br>Espainian lortu diren kapital higigarriaren etekinetatik zerga arloan kengarriak diren gastuen zenbatekoa.<br><br>- Baldin “Gakoa” eremuan (entitatearen erregistroaren 2. motako erregistroko 77 idazgunea) “A” adierazi bada, eta “Azpigakoa” eremuan (entitatearen erregistroaren 2. motako erregistroko 78-79 idazguneak) “02”, eremu honetan zera adieraziko da ikurrik eta koma dezimalik gabe:<br><br>Atzerrian lortu diren kapital higigarriaren etekinetatik zerga arloan kengarriak diren gastuen zenbatekoa.<br><br>- Baldin “Gakoa” eremuan (entitatearen erregistroaren 2. motako erregistroko 77 idazgunea) “C” adierazi bada, eta “Azpigakoa” eremuan (entitatearen erregistroaren 2. motako erregistroko 78-79 idazguneak) “01”, eremu honetan zera adieraziko da ikurrik eta koma dezimalik gabe:<br><br>Espainian lortu diren kapital higiezinaren etekin osoetatik zerga arloan kengarriak diren gastuen zenbatekoa.<br><br>- Baldin “Gakoa” eremuan (entitatearen erregistroaren 2. motako erregistroko 77 idazgunea) “C” adierazi bada, eta “Azpigakoa” eremuan (entitatearen erregistroaren 2. motako erregistroko 78-79 idazguneak) “02”, eremu honetan zera adieraziko da ikurrik eta koma dezimalik gabe:<br><br>Atzerrian lortu diren kapital higiezinaren etekinetatik zerga arloan kengarriak diren gastuen zenbatekoa.<br><br>- Baldin “Gakoa” eremuan (entitatearen erregistroko 2. motako erregistroko 77 idazgunea) “D” adierazi bada, eta “Azpigakoa” eremuan (entitatearen erregistroko 2. motako erregistroko 78 eta 79 idazguneak) “01”, honako hau adieraziko da eremu honetan:<br><br>Enpresa- edo lanbide-jarduerengatik Espainian lortu diren etekinetatik zerga arloan kengarriak diren gastuen zenbatekoa adieraziko da eremu honetan, ikurrik eta koma dezimalik gabe.<br><br>- Baldin “Gakoa” eremuan (entitatearen erregistroaren 2. motako erregistroko 77 idazgunea) “D” adierazi bada, eta “Azpigakoa” eremuan (entitatearen erregistroaren 2. motako erregistroko 78-79 idazguneak) “02”, eremu honetan zera adieraziko da ikurrik eta koma dezimalik gabe: atzerrian enpresa- edo lanbide-jardueretan lortutako etekinetatik zerga arloan kengarriak diren gastuen zenbatekoa.<br><br>- Baldin “Gakoa” eremuan (entitatearen erregistroaren 2. motako erregistroko 77 idazgunea) “L” adierazi bada, eta “Azpigakoa” eremuan (entitatearen erregistroaren 2. motako erregistroko 78-79 idazguneak) “A”, “C”, “D”, “E”, “F” edo “G”, eremu honetan zera adieraziko da ikurrik eta koma dezimalik gabe:<br><br>Jatorri bera izanik, herrialde berean lortutako errenta positiboen gainetik dauden errenta negatiboen zenbatekoa.<br><br>Zenbatekoak eurotan adierazi beharko dira.<br><br>Eremu hau bitan banatzen da: | |
| | | 165-174 | ZENBATEKOAREN OSOKO ZATIA. Edukirik ez badu, zeroz beteko da. |
| | | 175-176 | ZENBATEKOAREN ZATI DEZIMALA. Edukirik ez badu, zeroz |

| | | | |
|---|---|---|---|
| | | | beteko da. |
| | | Gainerako kasuetan, eremu hau hutsik utziko da. | |

Hamaika. II. eranskina. "Errenta egozgarria / Etekin egozgarri garbia / Aldez aurreko etekin egozgarri garbia", 2. motako erregistro-diseinuan (entitatearen erregistroa), 177-190 idazguneak.

| | | |
|---|---|---|
| 177-190 | Alfazenbakizkoa | ERRENTA EGOZGARRIA / ETEKIN EGOZGARRI GARBIA / ALDEZ AURREKO ETEKIN EGOZGARRI GARBIA.<br><br>- Baldin "Gakoa" eremuan (entitatearen erregistroko 2. motako erregistroko 77 idazgunea) "A" adierazi bada, eta "Azpigakoa" eremuan (entitatearen erregistroko 2. motako erregistroko 78 eta 79 idazguneak) "01", honako hau adieraziko da eremu honetan:<br><br>Espainian lortutako kapital higigarriaren etekinengatik egozgarria den errentaren zenbatekoa.<br><br>- Baldin "Gakoa" eremuan (entitatearen erregistroko 2. motako erregistroko 77 idazgunea) "A" adierazi bada, eta "Azpigakoa" eremuan (entitatearen erregistroko 2. motako erregistroko 78 eta 79 idazguneak) "02", honako hau adieraziko da eremu honetan:<br><br>Herrialde berean lortutako kapital higigarriaren etekinengatik egozgarria den errentaren zenbatekoa.<br><br>- Baldin "Gakoa" eremuan (entitatearen erregistroko 2. motako erregistroko 77 idazgunea) "C" adierazi bada, eta "Azpigakoa" eremuan (entitatearen erregistroko 2. motako erregistroko 78 eta 79 idazguneak) "01", honako hau adieraziko da eremu honetan:<br><br>Espainian lortutako kapital higiezinaren etekinengatik egozgarria den errentaren zenbatekoa.<br><br>- Baldin "Gakoa" eremuan (entitatearen erregistroko 2. motako erregistroko 77 idazgunea) "C" adierazi bada, eta "Azpigakoa" eremuan (entitatearen erregistroko 2. motako erregistroko 78 eta 79 idazguneak) "02", honako hau adieraziko da eremu honetan:<br><br>Herrialde berean lortutako kapital higiezinaren etekinengatik egozgarria den errentaren zenbatekoa.<br><br>- Baldin "Gakoa" eremuan (entitatearen erregistroko 2. motako erregistroko 77 idazgunea) "D" adierazi bada, "Azpigakoa" eremuan (entitatearen erregistroko 2. motako erregistroko 78 eta 79 idazguneak) "01", eta "Etekinak zehazteko araubidea" izeneko eremuan (erregistro bereko 82 idazgunea) "2" idazgunea adierazi ez bada, honako hau adieraziko da eremu honetan:<br><br>Espainian lortutako sarrera osoen eta zergaren ondorioetarako kengarriak diren gastuen arteko aldea. Etekina zuzeneko zenbatespen bereziko araubidean zehazten duten enpresa- edo lanbide-jarduerak izanez gero, jarduerak epe horretan emandako etekin garbiaren zenbatekoa adieraziko da eremu honetan.<br><br>- Baldin "Gakoa" eremuan (entitatearen erregistroko 2. motako erregistroko 77 idazgunea) "D" adierazi bada, "Azpigakoa" eremuan (entitatearen erregistroko 2. motako erregistroko 78 eta 79 idazguneak) "01", eta "Etekinak zehazteko araubidea" izeneko eremuan, erregistro bereko 82 idazgunean, "2", honako hau adieraziko da eremu honetan:<br><br>Espainian lortutako sarrera osoen eta zergaren ondorioetarako kengarriak diren gastuen arteko aldea (aldez aurreko etekin egozgarri garbia).<br><br>- Baldin "Gakoa" eremuan (entitatearen erregistroko 2. motako erregistroko 77 idazgunea) "D" adierazi bada, eta "Azpigakoa" eremuan (entitatearen erregistroko 2. motako erregistroko 78 eta 79 idazguneak) "02", honako hau adieraziko da eremu honetan:<br><br>Herrialde berean lortutako sarrera osoen eta zergaren ondorioetarako kengarriak diren |

| | | | |
|---|---|---|---|
| | | gastuen arteko aldea.<br>- Baldin “Gakoa” eremuan (entitatearen erregistroko 2. motako erregistroko 77 idazgunea) “E” adierazi bada, honako hau adieraziko da eremu honetan:<br>Inbertsio kolektiboko erakundeen partaidetza edo akzioen ondoriozko errenta kontabilizatuak edo kontabilizatu beharrekoak, hain zuzen, sozietateen gaineko zergaren zergadun eta ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren zergadun diren entitateko kideei egozten ahal zaizkienak.<br>- Baldin “Gakoa” eremuan (entitatearen erregistroko 2. motako erregistroko 77 idazgunea) “H” adierazi bada, honako hau adieraziko da eremu honetan:<br>Entitateak ekitaldian lortutako errentaren zenbatekoa, entitateko kideei egozten ahal zaiena. | |
| | | 177 | IKURRA. Errenta egozgarriaren edo etekin egozgarri garbiaren zenbatekoa negatiboa denean beteko da eremu hau. Kasu horretan, “N” adieraziko da. Beste edozein kasutan, eremu honen edukia zuriune bat izanen da. |
| | | 178-190 | ZENBATEKOA. Zenbakizko eremua, 13 idazgunekoa. Errenta egozgarriaren edo etekin egozgarri garbiaren zenbatekoa adieraziko da, ikurrik eta koma dezimalik gabe.<br>Zenbatekoak eurotan adieraziko dira.<br>Eremu hau bitan banatzen da:<br>178-188. ZENBATEKOAREN OSOKO ZATIA. Edukirik ez badu, zeroz beteko da.<br>189-190. ZENBATEKOAREN ZATI DEZIMALA. Edukirik ez badu, zeroz beteko da. |
| | | Gainerako kasuetan, eremu hau hutsik utziko da. | |

Hamabi. II. eranskina. “Gastuen xehetasuna/Jarduera ekonomikoen etekinak”, 2. motako erregistro-diseinua (entitatearen erregistroa), 266-395 idazguneak:

| | | | |
|---|---|---|---|
| 266-395 | Zenbakizkoa | GASTUEN XEHETASUNA/JARDUERA EKONOMIKOEN ETEKINAK<br>Baldin “GAKOA” eremuan (entitatearen erregistroaren 2. motako erregistroko 77 idazgunea) “D” adierazi bada, eta “AZPIGAKOA” eremuan (entitatearen erregistroaren 2. motako erregistroko 78-79 idazguneak) “01” edo “02”, adieraziko da zein den, izaeraren arabera, Espainian edo atzerrian enpresa- edo lanbide-jardueretan lortu diren etekinetatik zerga ondorioetarako kengarriak diren gastuen zenbatekoa, honako atal hauetan: | |
| | | 266-277 | LANGILERIA GASTUAK<br>Atal honetan, lansari eta soldaten, enpresaren kargurako gizarte segurantzaren eta bestelako langileria gastuen zenbatekoa adieraziko da. Eremu hau bitan banatzen da: |
| | | | 266-275: langileria gastuen osoko zatia adieraziko da. |
| | | | 276-277: langileria gastuen zati dezimala adieraziko da. |
| | | 278-289 | USTIAPEN KONTSUMOAK<br>Atal honetan, ustiapen kontsumo gisa ordaindutako zenbatekoa adieraziko da. Eremu hau bitan banatzen da: |
| | | | 278-287: ustiapen kontsumoen osoko zatia adieraziko da. |
| | | | 288-289: ustiapen kontsumoen zati dezimala adieraziko da. |
| | | 290-301 | ZERGA ONDORIOETARAKO KENGARRIAK DIREN TRIBUTUAK |

| | | | |
|---|---|---|---|
| | | | Zerga ondorioetarako kengarriak diren tributuen zenbatekoa adieraziko da. Eremu hau bitan banatzen da: |
| | | | 290-299: kengarriak diren tributuen osoko zatia adieraziko da. |
| | | | 300-301: kengarriak diren tributuen zati dezimala adieraziko da. |
| | | 302-313 | ERRENTAMENDUAK ETA KANONAK<br>Jarduerari lotutako ondasunak edo eskubideak zergadunari lagatzearen ondorioz alokairu, kanon, laguntza tekniko edo antzeko kontzeptuen gisa sortutako gastuen zenbateko kengarria adieraziko da, horien titulartasuna eskuratzen ez den kasuetan.<br>Eremu hau bitan banatzen da: |
| | | | 302-311: kengarriak diren errentamenduen eta kanonen osoko zatia adieraziko da. |
| | | | 312-313: kengarriak diren errentamenduen eta kanonen zati dezimala adieraziko da. |
| | | 314-325 | KONPONKETAK ETA KONTSERBAZIOA<br>Atxikitako aktibo materiala konpondu eta kontserbatzeko gastuen zenbateko kengarria adieraziko da.<br>Eremu hau bitan banatzen da: |
| | | | 314-323: kengarriak diren konponketa eta kontserbazio gastuen osoko zatia adieraziko da. |
| | | | 324-325: kengarriak diren konponketa eta kontserbazio gastuen zati dezimala adieraziko da. |
| | | 326-337 | ZERBITZU PROFESIONAL INDEPENDENTEAK<br>Jarduera ekonomikoari emandako zerbitzuengatik profesionalei ordaindutako gastuen zenbateko kengarria adieraziko da (konparazio batera, ekonomialarien, abokatuen, auditoreen, notarioen eta abarren zerbitzu-sariak), baita bitarteko agente independenteen komisioak ere.<br>Eremu hau bitan banatzen da: |
| | | | 326-335: kengarriak diren zerbitzu profesionalen gastuen osoko zatia adieraziko da. |
| | | | 336-337: kengarriak diren zerbitzu profesionalen gastuen zati dezimala adieraziko da. |
| | | 338-349 | HORNIDURAK<br>Argindarrari eta gordetzeko modukoa ez den beste edozein hornidurari (ura, gasa, telefonoa, Internet, etab.) dagozkion gastuen zenbateko kengarria adieraziko da.<br>Eremu hau bitan banatzen da: |
| | | | 338-347: kengarriak diren hornidura-gastuen osoko zatia adieraziko da. |
| | | | 348-349: kengarriak diren hornidura-gastuen zati dezimala adieraziko da. |
| | | 350-361 | FINANTZA-GASTUAK<br>Entitatearen jarduerak edo bere aktiboen elementuak finantzatzeko, besteren finantza-baliabideak erabiltzearen ondoriozko gastuen zenbateko kengarria adieraziko da.<br>Eremu hau bitan banatzen da: |
| | | | 350-359: kengarriak diren finantza-gastuen osoko zatia adieraziko da. |
| | | | 360-361: kengarriak diren finantza-gastuen zati dezimala adieraziko |

| | | | |
|---|---|---|---|
| | | | da. |
| | | 362-373 | AMORTIZAZIOAK<br><br>Amortizazioen zenbateko kengarria adieraziko da, Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 26/2016 Foru Legearen 16. artikulutik 18.era bitarte eta abenduaren 20ko 114/2017 Foru Dekretuaren bidez onetsitako zerga horren erregelamenduaren 2. artikulutik 10.era bitarte xedatutakoari jarraikiz.<br><br>Eremu hau bitan banatzen da: |
| | | | 362-371: amortizazioaren ondoriozko gastuen osoko zatia adieraziko da. |
| | | | 372-373: amortizazioaren ondoriozko gastuen zati dezimala adieraziko da. |
| | | 374-385 | HORNIKUNTZAK<br><br>Baldin “GAKOA" eremuan (entitatearen erregistroko 2. motako erregistroko 77 idazgunea) “D" adierazi bada, azpigakoaren eremuan (erregistro beraren 78 eta 79 idazguneak) “01” eta “02” adierazi bada eta “ETEKINAK ZEHAZTEKO ARAUBIDEA” eremuan (erregistro beraren 82 idazgunea) “1” adierazi bada, zerga ondorioetarako kengarriak diren hornikuntzen zenbatekoa adieraziko da, kontuan harturik Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 26/2016 Foru Legearen 21. eta 22. artikuluetan xedatutakoa.<br><br>Baldin “GAKOA" eremuan (entitatearen erregistroko 2. motako erregistroko 77 idazgunea) “D" adierazi bada, azpigakoaren eremuan (erregistro beraren 78 eta 79 idazguneak) “01” eta “02” adierazi bada eta “ETEKINAK ZEHAZTEKO ARAUBIDEA” eremuan (erregistro beraren 82 idazgunea) “2” adierazi bada, ez da eremu honetan sartuko kengarriak diren hornikuntzen zenbatekoa, ez eta justifikatzeko zailak diren gastuak ere, Estatuko PFEZaren Erregelamenduaren 30.2 artikuluan aipatzen direnak.<br><br>Eremu hau bitan banatzen da: |
| | | | 374-383: zerga ondorioetarako kengarriak diren hornikuntza-gastuen osoko zatia adieraziko da. |
| | | | 384-385: zerga ondorioetarako kengarriak diren hornikuntza-gastuen zati dezimala adieraziko da. |
| | | 386-395 | ZERGA ONDORIOETARAKO KENGARRIAK DIREN BESTELAKO GASTUAK<br><br>Zerga ondorioetarako kengarriak diren gainerako gastuen zenbatekoa adieraziko da, eremu honetako beste idazgune batzuetan jaso ez badira.<br><br>Eremu hau bitan banatzen da: |
| | | | 386-393: zerga ondorioetarako kengarriak diren gainerako gastuen osoko zatia adieraziko da. |
| | | | 394-395: zerga ondorioetarako kengarriak diren gainerako gastuen zati dezimala adieraziko da. |

Hamahiru. II. eranskina. “Zenbatekoa (Etekina/Atxikipena/Kenkaria)”, 2. motako erregistro-diseinuan (bazkidearen, jaraunslearen, erkidearen edo partaidearen erregistroa), 96-108 idazguneak:

| | | |
|---|---|---|
| 96-108 | Alfazenbakizkoa | ZENBATEKOA. (ETEKINA / ATXIKIPENA / KENKARIA).<br><br>- Baldin “Gakoa” eremuan (bazkidearen, jaraunslearen, erkidearen edo |

| | | |
|---|---|---|
| | | partaidearen erregistroko 2. motako erregistroko 93 idazgunea) “A” adierazi bada, honako hau adieraziko da eremu honetan:<br><br>Errentak eratxikitzeko araubideko entitateko kideari kapital higigarriaren etekin gisa egozten ahal zaion errentaren zenbatekoa (diru-sarrerak ken gastu kengarriak; bestela, "Zuzeneko zenbatespen berezia" araubidearen kasuan, etekin garbiaren zenbatekoa).<br><br>- Baldin “Gakoa” eremuan (bazkidearen, jaraunslearen, erkidearen edo partaidearen erregistroko 2. motako erregistroko 93 idazgunea) “C” adierazi bada, honako hau adieraziko da eremu honetan:<br><br>Errentak eratxikitzeko araubideko entitateko kideari kapital higiezinaren etekin gisa egozten ahal zaion errentaren zenbatekoa (diru-sarrerak ken gastu kengarriak; bestela, “Zuzeneko zenbatespen berezia” araubidearen kasuan, etekin garbiaren zenbatekoa).<br><br>- Baldin “Gakoa” eremuan (bazkidearen, jaraunslearen, erkidearen edo partaidearen erregistroaren 2. motako erregistroko 93 idazgunea) “D” adierazi bada, eremu honetan zera adieraziko da:<br><br>Errentak eratxikitzeko araubideko entitateko kideari enpresa- edo lanbide-jardueren etekin gisa egozten ahal zaion errentaren zenbatekoa (diru-sarrerak ken gastu kengarriak; bestela, "Zuzeneko zenbatespen berezia" araubidearen kasuan, etekin garbiaren zenbatekoa). Zuzeneko zenbatespen bereziko araubidean zehazten diren etekinen kasuan, jardueraren etekin garbitik entitateko kideari egozten ahal zaion zatia adieraziko da.<br><br>Aurrekoa gorabehera, “Gakoa” eremuan (entitatearen erregistroko 2. motako erregistroko 77 idazgunea) “D” adierazi baldin bada, “Azpigakoa” eremuan (erregistro bereko 78 eta 79 idazguneak) “01” edo “02”, eta “Etekinak zehazteko araubidea” izeneko eremuan (erregistro bereko 82 idazgunea) “2”, etekin positibo garbiaren zenbatekoa adieraziko da eremu honetan, “PFEZFLTBren 36.A).3 artikuluko kenkaria” izeneko eremuan (bazkidearen, jaraunslearen, erkidearen eta partaidearen erregistroko 2. motako erregistroko 160 - 171 idazguneak) adierazitako %5 kenduta.<br><br>- Baldin “Gakoa” eremuan (bazkidearen, jaraunslearen, erkidearen edo partaidearen erregistroaren 2. motako erregistroko 93 idazgunea) “E” adierazi bada, eremu honetan zera adieraziko da:<br><br>Entitateko kideari, inbertsio kolektiboko erakundeetan parte hartzetik datorren errenta kontabilizatu gisa, egozten ahal zaion errentaren zenbatekoa, kontuan hartuz errenta hori bakar-bakarrik sozietateen gaineko zergaren subjektu pasibo diren kideei edo establezimendu iraunkorra duten ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren zergadun diren kideei egozten ahal zaiela.<br><br>- Baldin“Gakoa” eremuan (bazkidearen, jaraunslearen, erkidearen edo partaidearen erregistroko 2. motako erregistroko 93 idazgunea) “F” adierazi bada, eta “Azpigakoa” eremuan (bazkidearen, jaraunslearen, erkidearen edo partaidearen erregistroko 2. motako erregistroko 94 eta 95 idazguneak) “01” adierazi bada, honako hau adieraziko da eremu honetan:<br><br>Errentak eratxikitzeko araubideko entitateko kideari egozten ahal zaizkion ondare-gehikuntza garbien zenbatekoa, errenta horiek ondare-elementuen eskualdaketetatik etorri ez badira, 03 azpigakoan aitortu beharrekoak salbu.<br><br>- Baldin“Gakoa” eremuan (bazkidearen, jaraunslearen, erkidearen edo partaidearen erregistroko 2. motako erregistroko 93 idazgunea) “F” adierazi bada, eta “Azpigakoa” eremuan (bazkidearen, jaraunslearen, erkidearen edo partaidearen erregistroko 2. motako erregistroko 94 eta 95 idazguneak) “02” adierazi bada, honako hau adieraziko da eremu honetan:<br><br>Errentak eratxikitzeko araubideko entitateko kideari egozten ahal zaizkion ondare-gutxitze garbien zenbatekoa, gutxitze horiek ondare-elementuen eskualdaketetatik etorri ez badira.<br><br>- Baldin“Gakoa” eremuan (bazkidearen, jaraunslearen, erkidearen edo partaidearen erregistroko 2. motako erregistroko 93 idazgunea) “F” adierazi bada, eta “Azpigakoa” eremuan (bazkidearen, jaraunslearen, erkidearen edo partaidearen erregistroko 2. motako erregistroko 94 eta 95 idazguneak) “03” adierazi bada, honako hau adieraziko da eremu honetan: |

<table>
<tr>
<td></td>
<td></td>
<td>
Errentak eratxikitzeko araubideko entitateko kideari egozten ahal zaizkion ondare-gehikuntzen zenbatekoa, gehikuntza horiek ohiko etxebizitza birgaitzeko dirulaguntzetatik etorri badira.
- “Gakoa” eremuan (bazkidearen, jaraunslearen, erkidearen edo partaidearen erregistroko 2. motako erregistroko 93 idazgunea) “G” adierazi bada, eta “Azpigakoa” eremuan (bazkidearen, jaraunslearen, erkidearen edo partaidearen erregistroko 2. motako erregistroko 94 eta 95 idazguneak) “01” adierazi bada, honako hau adieraziko da eremu honetan:
Errentak eratxikitzeko araubideko entitateko kideari egozten ahal zaizkion ondare-gehikuntza garbien zenbatekoa, gehikuntza horiek ondare-elementuen eskualdaketetatik etorri badira.
- “Gakoa” eremuan (bazkidearen, jaraunslearen, erkidearen edo partaidearen erregistroko 2. motako erregistroko 93 idazgunea) “G” adierazi bada, eta “Azpigakoa” eremuan (bazkidearen, jaraunslearen, erkidearen edo partaidearen erregistroko 2. motako erregistroko 94 eta 95 idazguneak) “02” adierazi bada, honako hau adieraziko da eremu honetan:
Errentak eratxikitzeko araubideko entitateko kideari egozten ahal zaizkion ondare-gutxitze garbien zenbatekoa, gutxitze horiek ondare-elementuen eskualdaketetatik etorri badira.
- “Gakoa” eremuan (bazkidearen, jaraunslearen, erkidearen edo partaidearen erregistroko 2. motako erregistroko 93 idazgunea) “I” adierazi bada, honako hau adieraziko da eremu honetan:
Bazkideari, jaraunsleari, erkideari edo partaideari eratxikitzen ahal zaizkion oinarriak edo kenkarien zenbatekoak.
- “Gakoa” eremuan (bazkidearen, jaraunslearen, erkidearen edo partaidearen erregistroko 2. motako erregistroko 93 idazgunea) “J” adierazi bada, honako hau adieraziko da eremu honetan:
Bazkideari, jaraunsleari, erkideari edo partaideari eratxikitzen ahal zaizkion oinarriak edo kenkarien zenbatekoak.
- “Gakoa” eremuan (bazkidearen, jaraunslearen, erkidearen edo partaidearen erregistroko 2. motako erregistroko 93 idazgunea) “K” adierazi bada, honako hau adieraziko da eremu honetan:
Entitateko kideari egozten ahal zaizkion atxikipenen eta konturako sarreren zenbatekoa.
Eremu hau bitan banatzen da:
<table>
<tr><td>96</td><td>IKURRA. Etekina negatiboa denean beteko da eremu hau. Kasu horretan, “N” adieraziko da. Beste edozein kasutan, eremu honen edukia zuriune bat izanen da.</td></tr>
<tr><td>97-108</td><td>
ZENBATEKOA. Zenbakizko eremua, 13 idazgunekoa. Etekinen, oinarrien edo kenkarien zenbatekoa eta atxikipenen eta konturako sarreren zenbatekoa adieraziko da, ikurrik eta koma dezimalik gabe.
Zenbatekoak eurotan adieraziko dira.
Eremu hau bitan banatzen da:
97-106. ZENBATEKOAREN OSOKO ZATIA. Edukirik ez badu, zeroz beteko da.
107-108. ZENBATEKOAREN ZATI DEZIMALA. Edukirik ez badu, zeroz beteko da.
</td></tr>
</table>
Gainerako kasuetan, eremu hau hutsik utziko da.
</td>
</tr>
</table>

Hamahiru. II. eranskina. 2. motako erregistro-diseinua (bazkidearen, jaraunslearen, erkidearen edo partaidearen erregistroa), 160-171 idazguneak:

| | | |
|---|---|---|
| 160-171 | Zenbakizkoa | PERTSONA FISIKOEN ERRENTAREN GAINEKO ZERGARI BURUZKO FORU |

<table>
<tr><td rowspan="3"></td><td rowspan="3"></td><td colspan="2">LEGEAREN TESTU BATEGINAREN 36.A).3 ARTIKULUKO KENKARIA<br><br>“GAKOA” eremuan (entitatearen erregistroko 2. motako erregistroko 77 idazgunea) “D” adierazten bada eta etekina zehazteko araubidea zuzeneko zenbatespen erraztua bada (2. motako erregistroko 82 idazgunea), 36.A).3 artikuluak aipatzen duen %5eko portzentajea entitateak kenkari honen aurretik duen etekin positibo garbiaren zenbatekoari aplikatzearen ondoriozko emaitza adieraziko da eremu honetan, eta emaitza hori entitateko parte-hartze portzentajearekin biderkatuko da.<br><br>Eremu hau bitan banatzen da:</td></tr>
<tr><td>160-169</td><td>OSOKO ZATIA. Kenkariaren zenbatekoaren osoko zatia adieraziko da. Edukirik ez badu, zeroz beteko da.</td></tr>
<tr><td>170-171</td><td>ZATI DEZIMALA. Kenkariaren zenbatekoaren zati dezimala adieraziko da. Edukirik ez badu, zeroz beteko da.</td></tr>
</table>

Laugarren artikulua. Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilariaren urriaren 28ko 339/2014 Foru Aginduaren aldaketa; haren bidez, 187 eredua onetsi zen, honakoak aurkezteko: inbertsio kolektiboko erakundeen kapitala edo ondarea ordezkatzen duten akzio edo partaidetzen aitorpen informatiboa, eta pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren, sozietateen gaineko zergaren eta ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren atxikipenen eta konturako sarreren urteko laburpena, akzio edo partizipazio horiek eskualdatu edo itzultzearen ondorioz lortutako errentei eta ondare gehikuntzei dagokienez.

Bat. 1. artikulua.

“1. artikulua. 187 eredua onestea

187 eredua onesten da, zeinak balio baitu honakoak aurkezteko: inbertsio kolektiboko erakundeen kapitala edo ondarea ordezkatzen duten akzio edo partaidetzen aitorpen informatiboa, eta pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren, sozietateen gaineko zergaren eta ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren atxikipenen eta konturako diru-sarreren urteko laburpena, akzio edo partaidetza horiek eskualdatu edo itzultzearen ondorioz lortutako errentei eta ondare gehikuntzei dagokienez. Elektronika bidez aurkeztuko da, Internet baliatuta, honako helbide honetan:https://hacienda.navarra.es”.

Bi. 7. artikulua.

“7. artikulua. 187 eredua aurkezteko modua

187 eredua elektronika bidez aurkeztuko da, mezu informatikoak baliatuta, foru agindu honen 9. eta 10. artikuluetan ezarritako baldintzei eta prozedurari jarraikiz”.

Hiru. 8. artikulua, kentzea.

Lau. Eranskina. Sinadura aldatzea eta A) letra kentzea, zeinetan euskarri magnetikoen ezaugarriak aipatzen baitira. “Diseinu logikoak” izeneko B) letra, A) letra izanen da aurrerantzean.

“187 EREDUAREN DISEINU LOGIKOAK”

Bost. Eranskina. “K” gakoa gehitzen da “ESKURATZEAREN EDO BESTERENTZEAREN JATORRIAREN EDO ETORKIAREN GAKOA” izeneko eremuan, 2. motako erregistro-diseinuan (eragiketaren erregistroa), 142 idazgunea:

“K. Inbertsio kolektiboko sozietateen akzio liberatuak entregatzea”.

Bosgarren artikulua. Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak otsailaren 27an emandako 27/2009 Foru Aginduaren aldaketa. Foru agindu horren bidez, batetik, onetsi egin zen 189 eredua, balore, aseguru eta errentei buruzko urteko aitorpen informatiboa, eta bestetik, eredu hori ordenagailuz zuzenean irakurtzeko moduko euskarrietan aurkezteko diseinu fisiko eta logikoak ezarri ziren.

Bat. 1. artikulua.

“1. artikulua. 189 eredua onestea eta hura aurkezteko modua.

189 eredua onesten da, "Balore, aseguru eta errentei buruzko urteko aitorpen informatiboa" izenekoa, zeina elektronika bidez aurkeztuko baita, Internet baliatuta”.

Bi. 3.1.b) artikulua.

“b) Titular direneko akzioen, partaidetzen edo baloreen kopurua eta mota, eta, akzioen edo partaidetzen balio nominala”.

Hiru. 5. artikulua, kentzea.

Lau. II. eranskina. Sinadura aldatzea eta A) letra kentzea, zeinetan euskarri magnetikoen ezaugarriak aipatzen baitira. “Diseinu logikoak” izeneko B) letra, A) letra izanen da aurrerantzean.

“189 EREDUAREN DISEINU LOGIKOAK”

Bost. II. eranskina. “BALORE KOPURUA” eremua aldatzen da 2. motako erregistro-diseinuan (aitortuaren erregistroa), 130-145 idazguneak hartzen dituena. Aurrerantzean, testu hau izanen du:

<table>
<tr><td rowspan="3">130-145</td><td rowspan="3">Zenbakizkoa</td><td colspan="2">BALORE KOPURUA<br>Entitate juridikoen kapitaleko edo funts berekietako akzio edo partaidetzen guztirako kopurua adieraziko da, merkatu antolatu batean negoziatu direnak, merkatu antolatuetan negoziatutako kapital berekiak hirugarrenei lagatzearen ondoriozko baloreena edo inbertsio kolektiboko erakunde baten kapital sozialeko edo ondare-funtseko akzioena edo partaidetzena, zeinetan aitortuak partaidetza-portzentaje jakin bat duen.<br>Ondorio horietarako, aitortu asko daudenean, haietako bakoitzean adieraziko da partaidetza-portzentaje jakin bat duten guztirako baloreen kopurua.<br>Eremu honi buruzko informazioa emanen da, bakar-bakarrik, "BALOREAREN GAKOA" (81 idazgunea) izeneko eremuan "A", "B" edo "C" balioa idatzi denean. Bi eremutan zatitzen da:</td></tr>
<tr><td>130-139</td><td>Baloreen zati osoa. Edukirik ez badu, zeroz beteko da.</td></tr>
<tr><td>234-235</td><td>Baloreen zati dezimala. Edukirik ez badu, zeroz beteko da.</td></tr>
</table>

Seigarren artikulua. Ogasuneko eta Finantza Politikako kontseilariak urtarrilaren 8an emandako 3/2018 Foru Aginduaren aldaketa; foru agindu horren bidez onetsi zen 190 eredua, "Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan, lan etekinengatik, enpresa- eta lanbide-jarduera batzuengatik, sariengatik eta errenta-egozpen batzuengatik egindako atxikipenen eta konturako sarreren urteko laburpena”.

Bat. 1. artikulua.

“1. artikulua. 190 eredua onestea

190 eredua onesten da, “Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga. Lan etekinengatik, enpresa- eta lanbide-jarduera batzuengatik, sariengatik eta

errenta-egozpen batzuengatik egindako atxikipenak eta konturako sarrerak. Urteko laburpena" izenekoa, zeina elektronika bidez aurkeztuko baita Nafarroako Foru Ogasunaren web-orria baliatuta, helbide honetan: https://hacienda.navarra.es".

Bi. 4. artikulua.

"4. artikulua. 190 eredua aurkezteko modua

190 eredua elektronika bidez aurkeztuko da, Internet baliatuta, 7. artikuluan ezarritako baldintza orokorrei eta 8. artikuluan ezarritako prozedurari jarraikiz".

Hiru. 5. eta 6 artikuluak, kentzea.

Lau. 7. artikulua.

"7. artikulua. 190 ereduaren aitorpenak bide elektronikotik, Internet erabiliz, aurkezteko baldintza orokorrak.

1. 190 ereduaren aitorpenen aurkezpen elektronikoa baldintza hauei jarraikiz eginen da:

a) Aitortzaileak identifikazio fiskaleko zenbakia eduki beharko du (IFZ).

b) Aitortzaileak eduki beharko du identifikazio, autentifikazio eta sinadura elektronikoaren sistema bat, eta ziurtagiri elektroniko kalifikatu bat erabili, Nafarroako Foru Ogasunak onartzeko modukoa, arloan indarra duen legediarekin bat etorriz.

Ziurtapen zerbitzuen emaileak eta baimenduta dauden ziurtagiri elektronikoak dagokien atalean aipatzen dira; Interneteko https://hacienda.navarra.es helbidetik abiatuta iristen ahal da atal horretara.

c) Zergapekoak pertsona fisikoak direnean, Cl@ve sistema erabiliz ere egin daiteke aurkezpena, zeina identifikazio, autentifikazio eta sinadura elektronikoaren sistema baita, amankomuna dena Estatuko administrazio-sektore publiko osorako, Nafarroako Foru Komunitateko Administraziorako eta harekin bat egiten duten beste autonomia erkidego eta toki entitateetarako, eta araututa dagoena PRE/1838/2014 Aginduan. Hari esker, herritarrak harreman

elektronikoa izan dezake zerbitzu publikoekin gako itunduen bidez, hartan erabiltzaile gisa izena eman ondoren.

Nafarroako Foru Ogasunak zehazten dituen kasuetan, gako itundu bidezko beste identifikazio sistema batzuk onar daitezke pertsona fisikoentzat.

d) Aurkezlea baldin bada aitorpenak hirugarrenak ordezkatuz egiteko baimenduta dagoen pertsona edo entitate bat, eduki beharko du Nafarroako Foru Ogasunak onetsitako ziurtagiri elektroniko kalifikatua, zeina aurreko b) eta c) letretan aipatu baita, bete dadin ekainaren 29ko 130/2009 Foru Aginduan xedatutakoa (foru agindu horren bidez onetsi zen aitorpenak hirugarren pertsonak ordezkatuz eta telematika bidez aurkezteko kanpo-lankidetzarako akordioa).

e) Aitortzaileak edo, bidezkoa bada, aurkezle baimendunak erabili beharko du, aldez aurretik, igorri beharreko aitorpena duen fitxategia lortzeko laguntza programa bat, non eta ez duen aukeratzen aurkezpen elektronikoa egiteko prestatu den inprimakia erabiltzea. Laguntza programa hori izan daiteke Nafarroako Foru Ogasunak 190 ereduaren aitorpenetarako prestatu duena, edo formatu bereko fitxategi bat sortzen duen beste bat.

Fitxategi horien edukia foru agindu honen eranskinean ezartzen diren erregistro-diseinuen araberakoa izanen da.

f) Aitortzaileek bete beharko dituzte aurkezpen elektroniko hori egiteko eskatzen diren arau teknikoak, zeinak Nafarroako Foru Ogasunaren web-orrian ikusgai dauden, Interneteko https://hacienda.navarra.es helbidean.

2. Bide elektronikoa erabiliz igortzen diren aitorpenetan akats formalen bat atzematen denean, sistemak berak emanen dio horren berri aitortzaileari errore-mezuen bitartez, behar diren zuzenketak egin ditzan".

Bost. Eranskina. Sinadura aldatzea eta A) letra kentzea, zeinetan euskarri magnetikoen ezaugarriak aipatzen baitira. "Diseinu logikoak" izeneko B) letra, A) letra izanen da aurrerantzean.

"190 EREDUAREN DISEINU LOGIKOAK"

Sei. Eranskina, 2. erregistro mota (hartzailearen erregistroa), 78 idazgunea, “HARTZEKOAREN GAKOA”, “H” gakoak testu hau izanen du:

“H. Nekazaritzako, abeltzaintzako, oihangintzako eta enpresako jarduеretako etekinak, zenbatespen objektiboan edo zuzeneko zenbatespen bereziaren modalitatean, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamendua onetsi zuen maiatzaren 24ko 174/1999 Foru Dekretuaren 78.6 artikuluan aipatzen denaren arabera”.

Zazpi. Eranskina, 2. erregistro-mota (hartzailearen erregistroa), “AZPIGAKO” eremuko 79-80 idazguneak, H gakoari dagozkion hartzekoak:

“01. Abeltzaintzako, nekazaritzako eta arrantzako araubide berezian dauden nekazariak eta abeltzainak.

02. Abeltzaintza %1eko atxikipenarekin

03. Oihangintzako jarduerak

04. Garraiolariak eta atxikipenaren menpe dauden beste profesional batzuk”

Zortzi. Eranskina, 2. erregistro-mota (hartzailearen erregistroa), “AZPIGAKO” eremuko 79-80 idazguneak, “L” gakoari dagozkion hartzekoak, 02, 20, 22, 24, 25 eta 28 azpigakoek testu hau izanen dute:

“02. Terrorismo-ekintzen biktimentzako prestazio publiko bereziak, terrorismoaren kontrako borrokan emandako dominen eta goraipamenen ondoriozko pentsioak, eta kalte pertsonalengatiko kalte-ordainak, ezarri direnak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen testu bateginaren 7.e) artikuluan”.

“20. Honako kasu hauetan emandako prestazio publikoak: jaiotzagatik, adopzioagatik, seme-alabak norberaren kargura edukitzeagatik, adingabeak hartzeagatik, zurztasunagatik, haur bat baino gehiago erditu edo adoptatzeagatik, minbiziak edo beste edozein gaixotasun larrik jotako seme-alaba adingabeak zaintzeagatik, bai eta familiaren arloan kasuan kasuko deialdien bidez emandako laguntzak ere, ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsitako Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko

Zergari buruzko Foru Legearen testu bateginaren 7. artikuluaren k) letraren laugarren lerroaldean ezarritakoaren arabera salbuetsirik daudenak, salbu eta L28 edo L29 azpigakoan adierazi beharrekoak".

"22. Prestazio ekonomikoak, ezarri zirenak Gizarte Zerbitzuen arloan banakoentzako eta familientzako prestazioak eta laguntzak arautzen dituen ekainaren 28ko 168/1990 Foru Dekretuan, eta prestazioak eta sorospenak agortu dituzten langabeentzako laguntzak (horiek biak ezarrita daude Gizarteratzeko eta Errenta Bermaturako eskubideak arautzen dituen foru legean), salbu eta L28 edo L29 azpigakoetan adierazi behar direnak".

"24. Gauzazko lan etekinak, salbuetsirik daudenak halaxe ezarri delako Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen testu bateginaren 15.3 artikuluko a), b), c), d) eta e) letretan. Azpigako honetan ez dira sartzen 25 azpigakoan (hurrengo azpigakoan) adierazi behar diren gauzazko lan etekin salbuetsiak.

Nolanahi ere, zerbitzuak emateko zeharkako formulak erabiltzen direnean soilik, datuak eskatuko dira Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen testu bateginaren 15.3 artikuluaren a) eta b) letretan ezarritako lan etekin salbuetsietatik 24 azpigako honetan sartzen direnei buruz.

25. Gauzazko lan etekinak, salbuetsirik daudenak hala ezarri delako Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen testu bateginaren 15.3.b) artikuluan, enpresek edo enplegatzaileek bideratzen dituztenak euren langileen seme-alabei Haur Hezkuntzako lehen zikloaren zerbitzua ematera. Hala ere, azpigako honetan ezarritako gauzazko lan etekin salbuetsiei dagokienez, horien gaineko datuak eskatuko dira, bakar-bakarrik, zerbitzu horiek emateko zeharkako formulak erabiltzen direnean".

"28. Errenta Bermatu gisako prestazio ekonomikoa, ezarrita dagoena Gizarteratzeko eta Errenta Bermaturako eskubideak arautzen dituen Foru Legean, zeina salbuetsirik baitago halaxe xedatu delako 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsitako Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko

Zergari buruzko Foru Legearen testu bateginaren 7. artikuluaren k) letrako laugarren paragrafoan”.

Bederatzi. Eranskina, 2. erregistro-mota (hartzailearen erregistroa), “AZPIGAKO” eremuko 79-80 idazguneak, “L” gakoari dagozkion hartzekoak. 29 eta 30 azpigako berriak sortzen dira, testu hau izanen dutenak:

“29. Gutxieneko diru-sarrera gisako prestazio ekonomikoa, araututa dagoena maiatzaren 29ko 20/2020 Errege Lege Dekretuan, zeina salbuetsirik baitago halaxe xedatu delako 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsitako Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen testu bateginaren 7. artikuluaren k) letrako laugarren paragrafoan”.

30. Beste errenta batzuk. Azpigako honetan sartuko dira Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga pagatzetik salbuetsita dauden beste errenta batzuk, 190 ereduan adierazi beharrekoak izanda aurreko azpigakoetan berariaz adierazi ez direnak (adibidez: elikatzeko urteko sariak, Epe Luzeko Aurrezki Planak, APen kalte-ordainak, kalte-ordainak askatasun-gabetzean egoteagatik, aurrezki sistematikoko banakako planak)”.

Zazpigarren artikulua. Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariaren abenduaren 16ko 156/2016 Foru Agindua aldatzea. Foru agindu horren bidez, “Finantza-aktiboekin eta bestelako balore higigarriekin egindako eragiketen urteko aitorpena” izeneko 198 eredua onetsi zen.

Bat. 1. artikulua.

“1. artikulua. 198 eredua onestea.

198 eredua onesten da ("Finantza-aktiboekin eta bestelako balore higigarriekin egindako eragiketen urteko aitorpena"). Elektronika bidez aurkeztuko da, Nafarroako Foru Ogasunaren web-orria baliatuta, helbide honetan: http://www.hacienda.navarra.es”.

Bi. 4. artikulua.

“4. artikulua. 198 eredua aurkezteko epea

198 eredua urtero aurkeztuko da, urtarrilaren 1etik otsailaren 5era bitartean, aurre-aurreko urte naturaleko eragiketen berri emateko".

Hiru. 5. artikulua.

"5. artikulua. 198 eredua aurkezteko modua

198 eredua elektronika bidez aurkeztuko da, Internet baliatuta, 6. artikuluan ezarritako baldintza orokorrei eta 7. artikuluan ezarritako prozedurari jarraikiz".

Lau. 6. artikulua.

"6. artikulua. 198 ereduaren aitorpenak bide elektronikotik, Internet erabiliz, aurkezteko baldintza orokorrak.

1. 198 ereduaren aitorpenen aurkezpen elektronikoa baldintza hauei jarraikiz eginen da:

a) Aitortzaileak identifikazio fiskaleko zenbakia eduki beharko du (IFZ).

b) Aitortzaileak eduki beharko du identifikazio, autentifikazio eta sinadura elektronikoaren sistema bat, eta ziurtagiri elektroniko kalifikatu bat erabili, Nafarroako Foru Ogasunak onartzeko modukoa, arloan indarra duen legediarekin bat etorriz.

Ziurtapen zerbitzuen emaileak eta baimenduta dauden ziurtagiri elektronikoak dagokien atalean aipatzen dira; Interneteko https://hacienda.navarra.es helbidetik abiatuta iristen ahal da atal horretara.

c) Zergapekoak pertsona fisikoak direnean, Cl@ve sistema erabiliz ere egin daiteke aurkezpena, zeina identifikazio, autentifikazio eta sinadura elektronikoaren sistema baita, amankomuna dena Estatuko administrazio-sektore publiko osorako, Nafarroako Foru Komunitateko Administraziorako eta harekin bat egiten duten beste autonomia erkidego eta toki entitateetarako, eta araututa dagoena PRE/1838/2014 Aginduan. Hari esker, herritarrak harreman elektronikoa izan dezake zerbitzu publikoekin gako itunduen bidez, hartan erabiltzaile gisa izena eman ondoren.

Nafarroako Foru Ogasunak zehazten dituen kasuetan, gako itundu bidezko beste identifikazio sistema batzuk onar daitezke pertsona fisikoentzat.

d) Aurkezlea baldin bada aitorpenak hirugarrenak ordezkatuz egiteko baimenduta dagoen pertsona edo entitate bat, eduki beharko du Nafarroako Foru Ogasunak onetsitako ziurtagiri elektroniko kalifikatua, zeina aurreko b) eta c) letretan aipatu baita, bete dadin ekainaren 29ko 130/2009 Foru Aginduan xedatutakoa (foru agindu horren bidez onetsi zen aitorpenak hirugarren pertsonak ordezkatuz eta telematika bidez aurkezteko kanpo-lankidetzarako akordioa).

e) Aitortzaileak edo, bidezkoa bada, aurkezle baimendunak erabili beharko du, aldez aurretik, igorri beharreko aitorpena duen fitxategia lortzeko laguntza programa bat, non eta ez duen aukeratzen aurkezpen elektronikoa egiteko prestatu den inprimakia erabiltzea. Laguntza programa hori Nafarroako Foru Ogasunak 198 ereduaren aitorpenetarako prestatu duena edo formatu bereko fitxategi bat sortzen duen beste bat izan daiteke.

Fitxategi horien edukia foru agindu honen eranskinean ezartzen diren erregistro-diseinuen araberakoa izanen da.

f) Aitortzaileek bete beharko dituzte aurkezpen elektroniko hori egiteko eskatzen diren arau teknikoak, zeinak Nafarroako Foru Ogasunaren web-orrian ikusgai dauden, Interneteko https://hacienda.navarra.es helbidean.

2. Bide elektronikoa erabiliz igortzen diren aitorpenetan akats formalen bat atzematen denean, sistemak berak emanen dio horren berri aitortzaileari errore-mezuen bitartez, behar diren zuzenketak egin ditzan".

Bost. 7. artikulua.

"7. artikulua. 198 ereduaren aitorpenak elektronika bidez, Internet baliatuta, aurkezteko prozedura.

Aitorpenen Internet bidezko aurkezpen elektronikoa egiteko, bi prozedura hauetako bat erabiliko da:

a) Web-orriko inprimakitik abiatuta prozesu hau erabiliko da:

1. Sartu Ogasunarekin izapideak egiteko zerbitzura, Nafarroako Foru Ogasunaren web-orritik.

2. Hautatu egin nahi den aitorpenaren eredua, eta bete aitorpena aurkeztu ahal izateko beharrezkoak diren datu guztiak.

3. Aitorpena bete ondoren, igortzeko aukera erabili. Aitorpena zuzen egina bada, sistemak balidatuko du. Akatsik atzemanez gero, inprimakiaren bidez emanen da horren berri, eta haiek zuzendu arte ezin izanen da aitorpena aurkeztu. Aitorpena zuzen bete ondoren, sistemak komunikatuko du aurkeztutako aitorpenari esleitutako zenbakia, eta, orobat, inprimatzeko aukera eskainiko du, frogagiri gisa erabiltzeko.

b) Nafarroako Foru Ogasunak prestatutako laguntza programatik abiatuta, prozesu hau segitu beharko da:

1. Aitorpena betetzea laguntza-programa erabiliz.

2. Aitorpena bete ondoren, balidatu egin behar da, aurkeztu aurretik.

3. Aitorpena balidatu ondoren, Interneten bidez igortzen ahalko da. Igorpen berean aitorpen bat baino gehiago sar daiteke, baldin eta eredu, ekitaldi eta urte berekoak baldin badira.

4. Aitorpena igorri ondoren, sistemak erantzunen du, hartu-zenbakia eta aurkezpenaren eguna eta ordua emanda. Igorpena balidatu eta prozesatu ondoren, haren emaitza laguntza programan eskura dauden loteen kontsultatik aztertzen ahalko da”.

Sei. 8. artikulua.

“8. artikulua. 198 ereduan hornidura informatiboari aplikatzen ahal zaizkion arauak, finantza-aktibo edo balore higigarri beraren titularrak diren aitortu bat baino gehiago daudenean.

Finantza-aktibo edo balore higigarri beraren titular bat baino gehiago dauden kasuetan hornidura informatiboa 198 ereduaren bidez ematearen ondorioetarako soilik, betebeharpeko subjektuek titularkide bakoitzari dagozkion datu ekonomikoak banan-banan eman beharko dituzte. Banakatze hori titularkide bakoitzaren partaidetza-proportzioaren arabera eginen da, betebeharpekoak modu fede-emailean dakienaren arabera. Modu fede-emailean jakiterik ez bada, partaidetzaren proportzioa titularkide guztiei zati berdinetan esleituko zaie, informazioa ematearen ondorio horietarako”.

Zazpi. II. eranskina. Sinadura aldatzea eta A) letra kentzea, zeinetan euskarri magnetikoen ezaugarriak aipatzen baitira. “Diseinu logikoak” izeneko B) letra, A) letra izanen da aurrerantzean.

“198 EREDUAREN DISEINU LOGIKOAK”

Zortzi. II. eranskina. Zehaztapen hau gehitzen da “W” gakoaren azpian, 2. motako erregistro-diseinuan (aitortuaren erregistroa), 134 idazgunean:

| | | |
|---|---|---|
| 134 | Zenbakizkoa | Eragiketen zerrenda egin behar denean (C, D, L, V, X, Y, eta Z eragiketa-gakoak), beteko da LOTUTAKO ERAGIKETAREN EKITALDIA eremua (368-371 idazguneak) baldin eta aitorpenarenaz bestelako ekitaldi batekoa bada. |

Bederatzi. II. eranskina. Aipamen hau ezabatzen da 2. motako erregistro-diseinuan, 188-192 idazguneetan: “aitortu guztiek partaidetza portzentaje berbera duten eragiketak baldin badira, zeroak jarriko dira”.

Hamar. II. eranskina. 2. motako erregistro-diseinuan (aitortuaren erregistroa), 224-235 idazguneak:

| | | | |
|---|---|---|---|
| 224-235 | Zenbakizkoa | KONPENTSAZIOAK.<br><br>Baloreak mailegatzeko eragiketen kasuan, "ERAGIKETA-GAKOA" eremuan (2. motako erregistroko 134 idazgunea) balore horiei "O" bat jarri baldin bazaie, eremu honetan konpentsazioen zenbatekoa adieraziko da. "ERAGIKETA-GAKOA" eremuko gainerako gakoetan (2. motako erregistroko 134 idazgunea), jarriko da urriaren 2ko 878/2015 Errege Dekretuaren 81. artikulutik 84.era bitartekoetan ezartzen diren balore negoziagarrien likidazio prozeduraren ondoriozko likidazio-doikuntzen eta konpentsazioen zenbatekoa, salbu eta V, Y eta Z gakoetan. Eremu hau bitan banatzen da: | |
| | | 224-233 | Konpentsazioen zenbatekoaren osoko zatia. |
| | | 234-235 | Konpentsazioen zenbatekoaren zati hamartarra. |

Hamaika. II. eranskina. 2. motako erregistro-diseinua (aitortuaren erregistroa), 348-360 idazguneak:

| | | |
|---|---|---|
| 348-360 | Alfazenbakizkoa | EMANDAKO EDO JASOTAKO DIRU KONPENTSAZIOA.<br><br>ERAGIKETA-GAKOA eremuan (134 idazgunea) V, Y edo Z gakoa jartzen delarik, adieraziko da, kasua bada, hartan emandako edo jasotako diru konpentsazioaren zenbatekoa.<br><br>Eremu hau honela banatzen da:<br><br>348: Konpentsazioaren zeinua. "N" balioaren bidez beteko da bakar-bakarrik aitortuak emandako diru konpentsazioak badira.<br><br>349-358: Emandako edo jasotako diru konpentsazioaren zenbatekoaren osoko zatia.<br><br>359-360: Emandako edo jasotako diru konpentsazioaren zenbatekoaren zati dezimala. |

Hamabi. II. eranskina. 2. motako erregistro-diseinua (aitortuaren erregistroa), 368-371 idazguneak:

| | | |
|---|---|---|
| 368-371 | Zenbakizkoa | LOTUTAKO ERAGIKETAREN EKITALDIA.<br><br>Eremu hau beteko da bakar-bakarrik LOTUTAKO ERAGIKETAREN ORDENA-ZENBAKIA (341-347 idazguneak) aitorpenarena ez den beste ekitaldi batekoa bada.<br><br>Lotutako eragiketa oraindik gauzatu gabe badago, eremu honetan "0001" jarriko da.<br><br>Baldin lotutako eragiketa aurreko ekitaldi bati badagokio, eremu honetan ekitaldi hori adieraziko da.<br><br>Gainerako kasuetan, zeroekin beteko da eremu hau. |

Hamahiru. II. eranskina. “BITARTEKARIAREN IFZ” eremua gehitzen da 2. motako erregistro-diseinuan (aitortuaren erregistroa), 372-380 idazguneak:

| | | |
|---|---|---|
| 372-380 | Alfazenbakizkoa | BITARTEKARIAREN IFZ<br><br>Baldin lotutako eragiketa (LOTUTAKO ERAGIKETAREN ZENBAKIA, 341-347 idazguneak) beste bitartekari baten bidez gauzatzen bada, aitortzaileak eremu horretan adierazi beharko du zein den lotutako eragiketan bitartekari aritu denaren identifikazio fiskalaren zenbakia.<br><br>Eremu hau eskuinetik lerrokaturik egonen da, azken idazgunea kontrol karakterea izanen da eta ezkerreko idazguneak zeroz beteko dira, bete daitezen Tributuak kudeatu eta ikuskatzeko eta tributuak aplikatzeko prozeduretarako arau komunak garatzeko jarduketa eta prozedurei buruzko Erregelamendu Orokorrean ezarritako arauak (erregelamendu hori onetsi zuen uztailaren 27ko 1065/2007 Errege Dekretuak). |

Hamalau. II. eranskina. “BITARTEKARIAREN ABIZENAK ETA IZENA, SOZIETATEAREN IZENA EDO IZENDAPENA” eremua gehitzen da 2. motako erregistro-diseinuan (aitortuaren erregistroa), 381-420 idazguneak:

| | | |
|---|---|---|
| 381-420 | Alfazenbakizkoa | BITARTEKARIAREN ABIZENAK ETA IZENA, SOZIETATEAREN IZENA EDO IZENDAPENA<br>Baldin lotutako eragiketa (LOTUTAKO ERAGIKETAREN ZENBAKIA, 341-347 idazguneak) beste bitartekari baten bidez gauzatzen bada, aitortzaileak eremu horretan adierazi beharko du zein den bitartekari horren izen osoa edo sozietatearen izena, modu honetan:<br><br>a) Pertsona fisikoa bada, aurrena lehen abizena, tarte bat, bigarren abizena, tarte bat eta izen osoa emanen dira, hurrenkera horretantxe. Aitortua adingabea bada, haren abizenak eta izena jasoko dira eremu honetan. |

| | | |
|---|---|---|
| | | b) Pertsona juridikoen eta errentak eratxikitzeko araubidea duten entitateen kasuan, entitatearen sozietate izena edo izen osoa jarriko da, anagramarik gabe. |

Hamabost. II. eranskina. “ZURIAK” eremuak, 2. motako erregistro-diseinuan (aitortuaren erregistroa), 421-500 idazguneak hartuko ditu.

Zortzigarren artikulua. Aldatzea abenduaren 9ko 149/2016 Foru Agindua, Ogasuneko eta Finantza Politikako kontseilariak emana, zeinaren bidez onesten baita 289 eredua, "Elkarren laguntzaren esparruko finantza-kontuei buruzko urteko aitorpen informatiboa" izenekoa.

Abenduaren 9ko 149/2016 Foru Aginduaren 3. artikulua aldatzea, zeina honela idatzita geldituko baita:

“3. artikulua. Informazioaren xedea.

Bete dadin azaroaren 13ko 1021/2015 Errege Dekretuaren 4. eta 5. artikuluetan xedatutakoa, 289 ereduan aitortu beharko da urriaren 25eko HAP/1695/2016 Aginduaren III. eranskinean zehaztutako informazio guztia (1021/2015 Errege Dekretuaren 5.2 artikuluan ezarritako salbuespenekin), finantza-kontuen titulartasuna edo kontrola izan eta aipatutako 1021/2015 Errege Dekretuaren 4. artikuluan aipatzen diren herrialde edo jurisdikzioetako batean (aipatu aginduaren I. eranskinean jasoak) egoitza fiskala duten pertsonei edo entitateei dagokienez.

Edonola ere, ondoriozta liteke, aipatu 1021/2015 Errege Dekretuaren eranskinean aipatzen diren eginbide-arauak aplikatu ondotik, ez dagoela informazio-komunikazioa behar duen konturik. Horrelakoetan, finantza erakundeek nahitaez egin behar duten aitorpen horretan adieraziko dute, bakar-bakarrik, hizpide dugun aginduaren III. eranskineko 1. puntutik 5.era eta 6.2 puntuan zehaztutako edukia”.

Bederatzigarren artikulua. Aldatzea Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariaren azaroaren 10eko 183/2009 Foru Agindua. Haren bidez 296 eredua onetsi zen “Ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga. Establezimendu

iraunkorrik gabeko ez-egoiliarrak. Atxikipenen eta konturako sarreren urteko aitorpena" izenekoa.

Bat. 2. artikulua.

"2. artikulua. 296 eredua aurkezteko modua.

296 eredua elektronika bidez aurkeztu beharko da, Internet baliatuz, 6 bis eta 6 ter artikuluetan ezarritako baldintza orokorrei eta prozedurari jarraikiz."

Bi. 6. artikulua, kentzea.

Hiru. 6 bis artikulua.

"6 bis artikulua. 296 ereduaren aitorpenak bide elektronikotik, Internet erabiliz, aurkezteko baldintza orokorrak.

1. 296 ereduaren aitorpenen aurkezpen elektronikoa baldintza hauei jarraikiz eginen da:

a) Aitortzaileak identifikazio fiskaleko zenbakia eduki beharko du (IFZ).

b) Aitortzaileak eduki beharko du identifikazio, autentifikazio eta sinadura elektronikoaren sistema bat, eta ziurtagiri elektroniko kalifikatu bat erabili, Nafarroako Foru Ogasunak onartzeko modukoa, arloan indarra duen legediarekin bat etorriz.

Ziurtapen zerbitzuen emaileak eta baimenduta dauden ziurtagiri elektronikoak dagokien atalean aipatzen dira; Interneteko https://hacienda.navarra.es helbidetik abiatuta iristen ahal da atal horretara.

c) Zergapekoak pertsona fisikoak direnean, Cl@ve sistema erabiliz ere egin daiteke aurkezpena, zeina identifikazio, autentifikazio eta sinadura elektronikoaren sistema baita, amankomuna dena Estatuko administrazio-sektore publiko osorako, Nafarroako Foru Komunitateko Administraziorako eta harekin bat egiten duten beste autonomia erkidego eta toki entitateetarako, eta araututa dagoena PRE/1838/2014 Aginduan. Hari esker, herritarrak harreman elektronikoa izan dezake zerbitzu publikoekin gako itunduen bidez, hartan erabiltzaile gisa izena eman ondoren.

Nafarroako Foru Ogasunak zehazten dituen kasuetan, gako itundu bidezko beste identifikazio sistema batzuk onar daitezke pertsona fisikoentzat.

d) Aurkezlea baldin bada aitorpenak hirugarrenak ordezkatuz egiteko baimenduta dagoen pertsona edo entitate bat, eduki beharko du Nafarroako Foru Ogasunak onetsitako ziurtagiri elektroniko kalifikatua, zeina aurreko b) eta c) letretan aipatu baita, bete dadin ekainaren 29ko 130/2009 Foru Aginduan xedatutakoa (foru agindu horren bidez onetsi zen aitorpenak hirugarren pertsonak ordezkatuz eta telematika bidez aurkezteko kanpo-lankidetzarako akordioa).

e) Aitortzaileak edo, bidezkoa bada, aurkezle baimendunak erabili beharko du, aldez aurretik, igorri beharreko aitorpena duen fitxategia lortzeko laguntza programa bat, non eta ez duen aukeratzen aurkezpen elektronikoa egiteko prestatu den inprimakia erabiltzea. Laguntza programa hori Nafarroako Foru Ogasunak 198 ereduaren aitorpenetarako prestatu duena edo formatu bereko fitxategi bat sortzen duen beste bat izan daiteke.

Fitxategi horien edukia foru agindu honen eranskinean ezartzen diren erregistro-diseinuen araberakoa izanen da.

f) Aitortzaileek bete beharko dituzte aurkezpen elektroniko hori egiteko eskatzen diren arau teknikoak, zeinak Nafarroako Foru Ogasunaren web-orrian ikusgai dauden, Interneteko https://hacienda.navarra.es helbidean.

2. Bide elektronikoa erabiliz igortzen diren aitorpenetan akats formalen bat atzematen denean, sistemak berak emanen dio horren berri aitortzaileari errore-mezuen bitartez, behar diren zuzenketak egin ditzan”.

Lau. II. eranskina. Sinadura aldatzea eta A) letra kentzea, zeinetan euskarri magnetikoen ezaugarriak aipatzen baitira. “Diseinu logikoak” izeneko B) letra, A) letra izanen da aurrerantzean.

“296 EREDUAREN DISEINU LOGIKOAK”

Bost. II. eranskina. “AZPIGAKOA” eremuan 03 eta 07 azpigakoak aldatzen dira, eta 12 eta 13 azpigakoak gehitzen dira, 2 motako erregistro-

diseinuan (hartzailearen erregistroa), 102-103 idazguneak:

“03. Barreneko salbuespena (batez ere: Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari buruzko Legearen testu bateginaren 14. artikulua), salbu eta 12 azpigakoan aipatutako kasuak”.

“07. Hartzailea pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zergaduna da, Espainiara iritsitako langileei aplikatzen zaien araubide berezikoa, zeina aipatzen baita PFEZari buruzko Foru Legearen testu bateginaren 10.2 artikuluan, salbu eta 13 azpigakoan aipatutako kasuak”.

“12. Kargatik salbuetsita dauden bidaia-gastuetarako esleipenak eta dietak (maiatzaren 24ko 174/1999 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Erregelamenduaren 8. artikulua)

13. Hartzailea pertsona fisikoen errentaren gainekozergaren zergaduna da, Espainiara iritsitako langileei aplikatzen zaien araubide berezikoa, zeina aipatzen baita Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen testu bateginaren 10.2 artikuluan”.

Sei. II. eranskina. “AZPIGAKOA” eremuan paragrafo bat gehitzen da azpigakoen bukaeran, 2. motako erregistro-diseinuan (hartzailearen erregistroa), 102-103 idazguneak:

“Aurreko zerrendako 06, 07, 08, 09,10, 11 eta 13 azpigakoetan aipatzen diren kasuetan, azpigako berariazko horiek beti aipatuko dira, gainerako azpigakoak kontuan hartu gabe”.

Zazpi. II. eranskina. “KONTURA EGINDAKO DIRU-SARRERA JASANARAZIAK” eremua gehitzen da 2. motako erregistro-diseinuan (hartzailearen erregistroa), 389-401 idazguneak:

| | | |
|---|---|---|
| 389-401 | Zenbakizkoa | KONTURA EGINDAKO DIRU-SARRERA JASANARAZIAK<br>Baldin “IZAERA” eremuan (2. motako erregistroaren 99 idazgunea) E balioa (gauzazko errenta) adierazi bada eta edukirik baldin badu ATXIKIPENAK ETA KONTURAKO SARRERAK eremuak (2. motako erregistroaren 121-133 idazguneak), eremu horretan adieraziko da gauzazko ordainsarien ordaintzaileak hartzaileari jasanarazi dion konturako sarreren zenbatekoa, kasua denean.<br>Eremu hau honela banatzen da: |

| | | |
|---|---|---|
| | | 389-399: Atxikipen eta konturako sarreren zenbatekoaren osoko zenbakien zatia (halakorik ez badu, zeroz beteko da).<br>400-401: Atxikipen eta konturako sarreren zenbatekoaren zenbaki dezimalen zatia (halakorik ez badu, zeroz beteko da). |

Zortzi. II. eranskina. “ZURIAK” eremuak, 2. motako erregistro-diseinuan (hartzailearen erregistroa), 402-432 idazguneak hartuko ditu.

Azken xedapen bakarra. Indarra hartzea.

Foru agindu honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra, eta 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera aurkezten diren aitorpenei aplikatuko zaie lehenbizikoz, 2021eko informazioari dagokionez.

Alabaina, bosgarren artikuluko bigarren apartatuan ezarritako aldaketa ez da indarrean sartuko harik eta maiatzaren 24ko 174/1999 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamenduko 62.17.A.a) artikulua aldatzen den arte, informazioa emateko beharra (aipatu apartatuak jasotzen duena) artikulu horretan ezarriz.

Iruñean,

EKONOMIA ETA OGASUNEKO KONTSEILARIA.

Elma Saiz Delgado